

INDARKERIA SEXUALA

Bortxaketen aurkako greba orokorra Errenterian, 1980an

Violadores y policía, la misma porquería” oihuak aditzen ziren

1980ko urtarrilaren 17an Errenterian. Garai hartako kronikek airean «biolentziaren klima» sumatzen zela jasotzen dute, giroan «haserre, beldurra eta urduritasuna» sumatzen zela. Greba orokorrak hila betean birritan egitea harritzekoa ez zen garaiaz ari gara, bizi zutenei ere zaila egiten zaie protesta bakoitza memorian bereiztea. Duela 43 urte gaurko egunez egin zenak, ordea, bazuen bereizgarri bat: guda ez ofizial batean, talde parapolizialak emakumeak bortxatzen ari ziren, eta eraso horien aurka altxatu ziren herrietarrak, «lanuzte orokorra bortxaketen aurka» aldarria pankartan zutelarik.

GAL sortu gabea zen oraindik, baina ordurako ezaguna zen talde parapolizialen bortxa Euskal Herrian. Guda testuinguruetan emakumeen gorputzak gerra-arma bezala erabiltzeko joera mundu osoan izan da, eta gure herria ez da salbuespena izan.

Berandu, baina iritsi zen aitortza: «Aldarrikapen politikoa duten emakumeei» egindako sexu-bortxaketak esplizituki jaso zituen Lakuak, 2008an Argituz-ek sinatutako “Motibazio politikoko indarkeriatik eratorritako giza eskubideen urraketak” txostenean, 1970eko eta 1980ko hamarkadei buruzkoan. «Euskal nazionalismoarekiko sentikortasuna edo ezarritakoaren aurrean errebelia partekatzen zuten jendarteko segmentu ezberdinetan ere terrorera eragitea zuten helburu», jasotzen du txostenak.

JENDARTEA / Iraitz MATEO

Oreretako Emakume Taldeak antolatu zuen 1980ko greba orokorra, hainbat alderdi eta eragilerekin elkarlanean. Gerra Zikinaren testuinguruan, talde parapolizialak emakumeak bortxatzen ari zirelako deitu zuten protestara.

Kontzientzia politikoa indartsu zegoen herrietan burutu ziren erasoak; aurretiaz eta estrategikoki pentsatuta zeudela ondorioztatzera eramán gaitzake horrek. Batik bat Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan, Bermeo, Errenteria eta Irun inguruan, jazo ziren bortxaketa haiek. Hain zuzen ere, Estatu espainolak bere gain hartutako (torturak, bahiketak) zein ukatutako (ekintza paramilitarrak) errepresio ekintza asko garatutako agertokietan.

Urtarrilaren 17rako Errenterian eta inguruko herrietan antolatu zen greba, baina Euskal Herriko beste hainbat txokotan ere izan zuen eragina.

1980ko urtarrilaren 17an egin zen greba orokorreko mobilizazioa, Errenterian. Maite BERRADRE-MEMORANDRA ORERETAKO MEMORIA FEMINISTA

Emakumeen Asanbladek, alderdi politiko ezberdinek eta hainbat eragilek egin zuten grebarako deia. Lantokietan, goizean goiz hasi ziren bilkurak eta sarrerren itxierak, eta inguruko taberna eta komertzioek ere bat egin zuten eta aterik ez zabaltzea erabaki zuten. «Erabateko etena» izan zela jakinarazi zuen biharamunek. Egin egunkariak.

Errepide orokorra itxi zuten Errenteriako protestan, eta milaka herritar atera ziren kalera Errenterian, Lezon, Pasaian eta Oiartzunen. Grebaren epizentroa Oiartzualdea izan bazen ere, Euskal Herriko beste hainbat herri eta hiritan ere egin ziren mobilizazioak. Bilbon izan zen esanguratsuenetako bat; arratsaldeko mobilizazioaz gain, egunean zehar egindako ekimenek zeresan handia eman baitzuten. Telenorteko erredakzioan abiatu zituen protestak erredakzioa okupatu zuen emakume talde batek. Azken egunetan gertatutako bortxaketak salatzeke adierazpen

ARTEFAKTUA



ETORKIZUNA
EGUNIK
EGUN

